


KOMUNITATE IZAN ADIERAZPENA



Auzo, herri eta udalerriko komunitatea indartzea haur, nerabe, gazte zein familien heziketa, zaintza, parte-hartzea, ongizatea eta eskubideak bermatzeko.

KOMUNITATE IZAN ADIERAZPENAK:

- Donostiako Tabakalera egindako **ASTIALDI BILTZARRA 2025** jardunaldian parte hartu zuten eragile anitzen ekarpenak jaso eta laburbiltzen ditu: gizarte-erakundeak eta denbora libre hezitzaileko erakundeak, tokiko administrazioak, foru-aldundiak, Eusko Jaurlaritza, ikastetxeak, familiak, boluntarioak eta kontratupeko pertsonak, zerbitzu espezializatuak, ezagutza-, prestakuntza- eta berrikuntza-zerbitzuak, eta haur, nerabe eta gazteak.
- Entzutea, gogoeta egitea eta elkarren artean eraikitzea oinarritzat dituen prozesu baten ondorio da, berrikuntza eta ezagutza ardatz hartuta. Adierazpenarekin auzoko, herriko eta udalerriko komunitatea indartu nahi da, hezteko, zaintzeko eta haurren, nerabeen, gazteen eta familien ongizatea, parte-hartzea eta eskubideak bermatzeko. Komunitateko eragileen arteko sare-laneko kooperaziotik abiatuta.
- 15 begiradatan egituratzen da. Begirada horiek parte hartu duten eragileen baieztapen nagusiak biltzen dituzte, zeinak aurkeztutako komunikazio, elkarrizketa irekiko espazioetan egindako agerraldi eta ekarpenak jasotzeko gerora egindako komunitate-prozesuaren bidez adierazi baitira.

Partekatutako esparru horrek, orain, ekintzari erreparatzen dio, eta adostasunak eta asmo onak garapen zehatz, iraunkor eta ebaluagarri bihurtzeko gonbitea luzatzen du.

Euskal Herrian.

- Bertako errealitate, testuinguru eta komunitate aniztasunetik abiatuta.
- Bertako errealitatera eta premia jakinetara lotuta.
- Bere ibilbidea eta memoria kontuan izanik.
- Herrialdearen erronkei modu komunitarioan ekiteko.
- Gizartearen esparruko komunitateko eragileak, proiektuak eta erakundeak, hirugarren sektore soziala, tokiko administrazioak, foru-aldundiak eta Eusko Jaurlaritza.

Euskal Herria osatzen duten testuinguru eta errealitateen aniztasuna kontuan izanik, eraikuntza komunitarioek sareak ehuntzen dituzte, herritartasuna indartzen dute eta herrialde gisa ukitzen gaituzten premia zehatzei erantzuten diete. Hori gizartearen esparruko komunitateko eragileek, proiektuek eta erakundeek, tokiko administrazioek, foru aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak bat eginez lortzen da, betiere, pertsonak beren garapeneraren muinean kokatuz.

15 BEGIRADAK

01

Komunitatea behar duen
gizarte-testuinguru
korapilatsua.

02

Tokiko komunitatea
ekintzarako lehentasunezko
espazio modura.

03

Komunitatea ardatz duen
tokiko garapena.
Zerbitzuetarako,
politiketarako, prozesuetarako
eta proiektuetarako
ezinbesteko ardatzak.

04

Haurrak, nerabeak,
gazteak eta familiak
erdigunean.

05

Herritarren parte-hartze
aktiboa.

06

Komunitateko eragileen
zeregina: erantzukizun
partekatua, haurren,
nerabeen eta gazteen
eskubideei begirako
komunitate-sareak.

07

Lege-esparrua eta politika
publiko aurreratuak
aplikatzea.

08

Eskola eta komunitateko
hezkuntza-komunitatea.

09

Tokiko komunitate
askotarikoak.

10

Gobernantza kooperatiboa.

11

Zenbait alderdiren gaineko
arreta berezia.

12

Komunitateko eragileak:
prestakuntza, gaikuntza
eta lagun egitea.

13

Ezagutza, diagnostia,
ebaluazioa.

14

Berrikuntza eta eguneratzea.

15

Aisialdi hezigarria:
pertsonek eta
komunitateen
garapenerako
funtsezko tresna.

01

Komunitatea behar duen gizarte- testuinguru korapilatsua

Euskal gizartea gero eta globalagoa, digitalagoa eta azeleratuagoa da, eta indibidualismoa, saturazioa, kontsumoa, berehalakotasuna eta hedabideen gehiegizko mendekotasuna ditu ezaugarri. Egoera horretan, gero eta agerikoagoa da auzotasunaren loturak eta elkarrekintzak berreraikitze-ko eta indartzeko premia, komunitate-bizitzaren sostengu baitira. Ongizate pertsonala ez dago ongizate kolektiborik gabe ulertzerik: biak elkarlotzen dira eguneroko konexioetan, kidetasunean eta lurraldearekiko inplikazioan. Hori dela eta, ezinbestekoa da balio partekatuen sendotzea, gi-

- Gizarte globala, digitala, azeleratua, gain hartua, indibidualista, kontsumista eta mediatikoa.
- Loturak, konexioak, auzotasuna eta komunitate-bizitza indartzeko premia.
- Ongizate pertsonala eta komunitarioa bereizezinak.
- Balio partekatuen, gizarte-koheretza eta erantzukidetasuna sendotzea.

zarte-koheretza sustatzea eta erantzukidetasuna aktibatzea, garai korapilatsu bateko erronkei aurre egiteko gai izango diren komunitateak indartzeko oinarri modura.

02

Tokiko komunitatea ekintzarako lehentasunezko espazio modura

Auzoa, herria edo udalerrria ekintzarako lehentasunezko gune dira, hezkuntza- eta gizarte-arloko abagune. Hor egunerokotasunak, elkarbizitzak eta hurbiltasun-baliabideek funtsezko lurraldea egituratzen dute hainbat alderdi sustatzeko; esate baterako, berdintasuna, bizikidetzak, euskal komunitatea eta euskara, osasuna, kultura, kirola, indarkerien prebentzioa, kontziliazioa eta jasangarritasuna. Tokiko komunitatea berez da hezkuntza-testuinguru, -eduki eta -eragile: bilbatura bizia da, eta hor, eskolako horretatik harago irteten da heziketa, eta ikaskuntza eta herri-tartasuna ardatz dituen esperientzia partekatua moldekatzen duten ekipamenduetan, erakundeetan eta proiektuetan ere garatzen da.

- Auzoa, herria edo udalerrria, hezkuntza-, gizarte- eta kultura-arloetako abagune gisa.
- Bizikidetzak-espazioak, premiak eta hurbiltasun-baliabideak. Familia hezitzaileen bizikidetzak-lekuak.
- Funtsezko lurraldea alderdi hauei so: berdintasuna, bizikidetzak, euskal komunitatea eta euskara, osasuna, kultura, kirola, indarkerien prebentzioa, kontziliazioa, jasangarritasuna...
- Herria/auzoa bere horretan; testuingurua, edukia eta hezkuntza-eragilea.
- Heziketa ez da eskolara mugatzen: bertako ekipamenduetan, erakundeetan eta proiektuetan ere garatzen da.

03

Komunitatea ardatz duen tokiko garapena. Zerbitzuetarako, politiketarako, prozesuetarako eta proiektuetarako ezinbesteko ardatzak

Haurren, nerabeen eta gazteen eskubideak erakitzen dituzten politikak, zerbitzuak eta proiektuak bideratu behar dituen ezinbesteko ardatza komunitatea da: komunitateko eragileen loturak, erantzukidetasuna, balioak eta kooperazioa. Orainaldiko eta etorkizuneko erronkei modu kolektiboan erantzuteko gai izango diren komunitate sendoagoak, berdinzaleagoak, inklusiboagoak eta

- Loturak.
- Balioak.
- Erantzukidetasuna.
- Komunitateko eragileen arteko kooperazioa.

seguruagoak eraikitzeko, funtsezkoa da pertsonak beren komunitatearekin lotzen dituzten loturak indartzea, erantzukidetasuna behar diren garapenak eraikitzeko konpromiso partekatu gisa aktibatzea eta bizikidetzaren eta gizarte-kohesioaren sostengu diren balioak sendotzea. Eta guztion artean eraikitzea, komunitateko eragileen arteko loturetatik eta elkarrekinzetatik abiatuz.

04

Haurrak, nerabeak, gazteak eta familiak erdigunean

Haurrak, nerabeak, gazteak eta familiak erdigunean ipintzeak berekin dakar haien premiak, errealitateak, aukerak eta gaitasunak komunitate-ekintza ororen ardatz modura ipintzea. Horrek parte-hartzeko eta entzute aktiborako espazioak sortzea dakar, beren iritziak eman eta erabakiak hartu ditzaten. Horrela, lagun egiten zaiela eta osoko babesa ematen zaiela bermatuko da, komunitatean duten lekua aitortuz. Haurrak, nerabeak, gazteak eta familiak ez dira hartzaile pasiboak; aitzitik, eragile aktiboak dira, berezko gaitasuna eta parte hartzeko eskubide osoa baitute. Ikuspegi horretan, helduak ordezkari izateari utzi behar dio, eta laguntzailearen zeregina hartu behar du; hazkuntzako, ikaskuntzako eta eraikuntza kolektiboko prozesuak haiekin partekatzen dituen norbait izan behar du.

- Haien premiak, errealitateak eta aukerak ekintzarako lehentasunezko ardatz izatea.
- Parte hartzeko eta entzute aktiborako espazioak sortzea.
- Lagun egitea eta osoko babesa bultzatzea.
- Haurrak, nerabeak, gazteak eta familiak ez dira hartzaile pasiboak; eragile aktiboak dira.
- Haien gaitasunak eta eskubideak aitortzeko premia.
- Helduak "ordezkari" izateari uzten dio, eta laguntzailearen zeregina betetzen du.

05

Herritarren parte-hartze aktiboa

- Benetako parte-hartzea bultzatzea prozesuetan eta jardueretan.
- Kidetasuna, pentsamendu kritikoa eta herritartasun aktiboa sustatzea.
- Elkarrekin bizitzeko, lankidetzan aritzeko eta eraldatzeko modu berriak moldatuko dituzten esperientzia inspiratzaileak egituratzea.

Herritarren parte-hartze aktiboa bultzatzeak berekin dakar komunitate-bizitza moldekatzen duten prozesuetan eta jardueretan benetako inplikazioa sustatzea, pertsona bakoitzak bere ekarpenak egitea eta bertako kide sentitzea ahalbidetzeko guneak sortuz. Horrek berekin dakar kidetasuna, pentsamendu kritikoa eta bere ingurunearekin eta premiekin konprometitutako

herritartasun aktiboa sustatzea. Horregatik, funtsezkoa da elkarrekin bizitzeko, lankidetzan aritzeko eta errealitatea modu kolektiboan eraldatzeko modu berriak zehaztuko dituzten egiturak sortzea. Horrela, kohesionatuago eta ahalduago dauden komunitateak sendotuko dira, aurrez aurre dituzten erronkei ekiteko gai direnak.

Funtsezkoa da elkarrekin bizitzeko, lankidetzan aritzeko eta errealitatea modu kolektiboan eraldatzeko modu berriak zehaztuko dituzten egiturak sortzea.



06

Komunitateko eragileen zeregina: erantzukizun partekatua, haurren, nerabeen eta gazteen eskubideei begirako komunitate-sareak

- Hirugarren sektorearen, administrazioen eta eragileen arteko lankidetzaren lehenestea.
- Politikak, zerbitzuak eta proiektuak komunitateko ezaugarri funtsezkoekin lerrokatzea.
- Sare-lanean gehiago eta hobeto aritzea, eredu kooperatiboak aintzat hartuta.
- Auzoetan eta udalerrietan sare komunitarioak sortzea eta indartzea.
- Ongizatea, babesa, inklusioa, heziketa, zaintzak eta parte-hartzea ziurtatzea.
- Erantzun pertsonalizatuak emateko tresna sendo eta aurreratuak diseinatzea.

Komunitateko eragileen zeregina funtsezkoa da kohesionatuta dauden komunitate erantzukideak bultzatzeko. Ezinbestekoa da hirugarren sektorearen, administrazioen eta bertako gainerako eragileen arteko lankidetzari lehentasuna ematea, itun sendo eta operatiboak sortuz. Modu berean, funtsezkoa da politikak, zerbitzuak eta proiektuak komunitateko ezaugarri funtsezkoekin lerrokatzea, esku-hartzeak koherenteak, osagarriak eta jasagarriak izan daitezten. Sare-lanean gehiago eta hobeto aritzeak, eredu kooperatibo eta horizontalak aintzat hartuta, aukera ematen du erantzun osoak emateko eta ongizate kolektiboa sostengatzen duen komunitate-ehuna sendotzeko.

Ikastetxeek, guraso-elkarteek, aisialdi-zerbitzuek, gizarte-zentroek, zerbitzu espezializatuak, kirol- eta kultura-zentroek, haurren, nerabeen, gazteen, berdintasunaren, hezkuntzaren eta kulturaren ar-



loko udal-sailek, osasun-zerbitzuek, elkarrekin eta hirugarren sektore sozialeko erakundeek eragile, zerbitzu eta proiektuen mapa komunitario bat osatzen dute -kasu batzuetan besteetan baino zabalagoa edo konplexuagoa- auzoko edo udalerriko komunitate bakoitzean. Eragile guztien artean harreman-ehuna zenbat eta handiagoa izan, orduan eta indartsuagoa izango da komunitate-proiektua.

Erantzukizun komunitarioa partekatua da, eta eragileen arteko loturekin eta elkarrekintzekin sostengatzen da. Eragile horiek elkar aitortzen dutenean, koordinatzen direnean eta harreman-ehun konfiantzazkoa eraikitzen dutenean, komunitate-proiektua indartu egiten da. Horren ondorioz, erantzun koherenteagoak sortzen dira, gertukoagoak eta eraldatzaileagoak haurrentzat, nerabeentzat, gazteentzat eta, oro har, komunitate guztiarentzat.

Auzoetan eta udalerrietan sare komunitarioak sortzea eta indartzea funtsezkoa da haurren, nerabeen eta gazteen eskubideak bermatzeko. Sare horiek haien ongizatea, babesa, inklusioa, heziketa, zaintza eta parte-hartzea ziurtatu behar dituzte, errealitate bakoitzaren arabera erantzun gertukoak eta koherenteak egituratuz, modu koordinatuan emandakoak. Horretarako, ezinbestekoa da laguntza pertsonalizatuak eskaintzeko aukera emango duten tresna sendoak eta aurreratuak diseinatzea, haur, nerabe, gazte eta familia bakoitzaren premia anitzei, eta horien tokiko komunitateetako eta lurraldeetako premiei, zehaztasunez erantzuteko modukoak.

07

Lege-esparrua eta politika publiko aurreratuak aplikatzea

- Euskadiko haurtzaro, nerabezaro, gaztaro eta hezkuntzari buruzko legeak eta planak, gidalerrotzat hartuta.
- Koherentziaren, plangintzaren, ebaluazioaren eta etengabeko hobekuntzaren premia.
- Administrazio publikoen lidergoa eta erantzukizuna: Eusko Jaurlaritza, aldundiak eta udalak.

Lege-esparruak eta Politika Publikoen esparruak haurren, nerabeen eta gazteen eskubideak garatzeko gida sendo eta koherentea izan behar dute. Euskadiko haurtzaro, nerabezaro, gaztaro eta hezkuntzari buruzko legeak, planak eta politika-esparruak norabide estrategikoa adierazten duten tresnak dira, eta derrigorrezkoa da ekintza oro haietan agindutakoarekin koherentzia garatzea. Funtsezkoa da garapen jakin batzuk emango dituen plangintza zorrotza txertatzea, bai eta adierazle bidezko ebaluazio jarraitu eta sistematikoa ere. Etengabeko baloraziorako prozesu horrek lagungarri izan behar du esku-hartzeen benetako inpaktua neurtzeko, eta hezkuntza-ekosistema etengabe hobetzen dela bermatzeko, ziurtatuz politika publikoek eraginkortasunez eta modu egu-

neratuan erantzungo dietela komunitateetako eta, horrenbestez, herrialdeko erronkei.

Testuinguru horretan, administrazio publikoen (Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak eta udalak) lidergoa eta erantzukizuna erabakigarria da. Erakunde horiek bultzatu beharko lituzkete politika egonkorrak, koherenteak eta lerrokatuak; horiek arduratu beharko liriateke komunitate-proiektuak baliabidez hornitzeaz; eta horiek bermatuko beharko lukete zeharkakotasuna, eta sailen, lurraldeen eta sistemen arteko koordinazioa. Haien konpromiso aktibo eta erantzukidea funtsezkoa da sendoa eta jasangarria izango den komunitate-eredu bat finkatzeko, lurralde osoan ongizatea, kohesioa eta herritartasuna sortzeko gai izango dena.

Administrazio publikoen (Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak eta udalak) lidergoa eta erantzukizuna erabakigarria da.



08

Eskola eta komunitateko hezkuntza-komunitatea

- Eskola: Komunitate-ekosisteman funtsezko eragilea da, haurren, nerabeen, gazteen eta familien eskubideak bermatuko dituzten komunitateak eraikitzeko balio baitu.
- Eskolaren eta lurraldearen arteko lankidetzaren indartzea, auzoko edo herriko bizimoduarekin konektatuta egoteaz gain bizimodu horrekin koherentea izango den heziketa osoa emateko.
- Ikastetxeen parte-hartze aktiboa komunitate-sareetan: funtsezkoa erantzun partekatuak emateko eta hezkuntza-komunitate erantzukide bat finkatzeko.

Eskola, hezkuntza-komunitatearekin batera (ikastetxeak, irakasle-taldeak, guraso-elkarteak eta familiak), funtsezko habea da haurren, nerabeen, gazteen eta familien eskubideak bermatuko dituzten komunitate sendoak eraikitzeari begira. Haren eginkizunak ikasgelatik harago joan behar du, eta, erantzukidetasuna ardatz hartuta, komunitate-ekosisteman naturalki txertatu behar du, ikaskuntzarako, elkarbizitzarako eta partaidetzarako abaguneak sortuz, lurraldeko proiektuekin, zerbitzuekin eta eragileekin elkarlotuta. Horrenbestez, eskola funtsezko eragilea da aniztasuna aintzat hartzen duen auzoko, herriko edo udalerriko hezkuntza-proiektua egituratzeko, ongizatea eta eskubideak bultzatzeko eta haurrak, nerabeak eta gazteak erdigunean ipintzeko.

Eskolaren eta komunitatearen arteko harremana indartzeak berekin dakar aisialdi hezigarriaren alorreko proiektuekin eta erakundeekin zein kul-

tura-, kirol- eta gizarte-eragileekin lankidetzarako espazioak irekitzea, auzoko edo herriko bizitzarekin konektatuta dagoen eta esperientzietan oinarritzen den heziketa osoa baterako aukera zabalduz. Horretarako, koordinaziorako egitura egonkorra, proiektu partekatuak eta, loturetatik abiatuz, erantzukidetasuna, gizarte-kohesioa eta berdintasuna bultzatuko dituen baterako begirada behar dira.

Era berean, ikastetxeek komunitate-sareetan aktiboki parte hartzea bermatu behar da, premiak hautemateko, erantzun pertsonalizatuak diseinatzeko eta familien benetako parte-hartzea ahalbidetzeko laguntza eskainiz. Eskolaren inplikazioa funtsezkoa da hezkuntza-ibilbide koherenteak sortzeko, lurraldearekiko loturak indartzeko eta modu kolektiboan ikasten duen, zaintzen duen eta hazten den hezkuntza-komunitate bat finkatzeko.



Ikastetxeek
komunitate-sareetan
aktiboki parte hartzea
bermatu behar da.

09

Tokiko komunitate askotarikoak

Euskal Herriko auzoetan, herrietan eta udalerrietan tamainari, gizarte-ezaugarriari eta testuinguruei dagokienez askotarikoak diren tokiko komunitateak daude, eta bakoitzak bere premiak, dinamikak eta baliabideak ditu. Aniztasun horrek lurralde bakoitzaren berezitasunetara egokitutako erantzunak eskatzen ditu, irtenbide bakarrik eta eredu homogeneorik ez dagoela aitortuz. Aniztasun hori balio gisa baitaratzea funtsezkoa da egiaz errealitate bakoitzera egokitu diren komunitate-proiektuak diseinatzeko, komunitate-bizitzaren (bere aberastasun osoan) sostengu diren kohesioa, errotzea eta kidetasun-sentimendua indartuz.

- Auzoetan, herrietan eta udalerrietan.
- Euskal Herriko tokiko komunitateak askotarikoak dira tamainari, gizarte-ezaugarriari eta testuinguruei dagokienez.
- Lurralde bakoitzak bere premiak, dinamikak eta baliabideak ditu.
- Komunitate eta lurralde bakoitzak bere premia zehatzetara egokitutako erantzunak behar ditu.
- Aniztasun hori aitortzea oinarritzkoa da errealitate bakoitzaren arabera komunitate-proiektuak diseinatzeko.
- Lurralde-aniztasunak kohesioa, errotzea eta kidetasuna indartzeko balioa izan behar du.

10

Gobernantza kooperatiboa

Gobernantza partekatua funtsezkoa da lurraldeetan komunitate-lana modu koherentean eta eraginkortasunez hedatzeko. Horretarako, komunitate-ardatz erako lantaldeak osatu behar dira, sarea egituratzeko, eragileen arteko lankidetzak bultzatzeko eta ikuspegi integratzailea bermatzeko zereginarekin.

Halaber, premiazkoa da koordinazioa, konektibitatea eta lankidetzak ahalbidetzeko euskal sistemak egituratzea, aukera emango baitute egi-

- "Komunitate-ardatz" erako lantaldeak sarea hedatzeko.
- Koordinazioa, konektibitatea eta lankidetzak ahalbidetzeko euskal sistemak egituratzea.

nahak lerrokatzeko, informazioa partekatzeko eta administrazioen, erakundeen eta komunitateen arteko sinergiak sortzeko. Erantzukidetasuna eta baterako egituraketa oinarritzat dituen gobernantzarekin soilik jo ahal izango da komunitate-sistema sendoa, koherentea eta jasangarria baterantz. Gardentasuna, kontu-ematea, kode etikoak eta gobernu ona administrazio publikoek eta hirugarren sektoreak aintzat hartu beharreko printzipioak eta habeak dira.

11

Zenbait alderdiren gaineko arreta berezia

Euskal Herrian komunitatea eraikitzeko begiradak zabala, kontzientea eta pertsonen bizitzan ematen diren errealitateekin konprometitua izan behar du. Sendoak, kohesionatuak eta erantzukideak izango diren komunitateetara jotzeko, hainbat alderdi ipini behar dira erdigunean; esate baterako, aniztasuna, feminismoa, inklusioa, euskara eta euskal komunitatea, elkarbizitza, familia-erantzukidetasuna, gizarte teknologiko eta digital baten erronkak, kontzientzia klimatikoa eta belaunaldien arteko elkartasuna. Hori guztiori babesa eta tratu ona oinarritzat dituen kulturaren ikuspegitik. Dimentsio horiek txertatzea ez da gehigarria; aitzitik, ezinbesteko baldintza da komunitate-prozesuak eraldatzaileak izan daitezzen, lurraldeetako egiazko premiei erantzun diezaieten eta pertsona guztiak denon proiektu baten parte direla senti dezaten. Arreta sakon eta

- Dibertsitatea eta inklusioa.
- Feminismoa.
- Familien erantzukidetasuna. Gurasoen eskumenak.
- Migratzaileak.
- Euskara, Euskal Kultura, Euskal Komunitatea.
- Gizarte teknologiko eta digitala.
- Babesa eta tratu ona.
- Kontzientzia klimatikoa eta jasangarritasuna.
- Belaunaldien arteko elkartasuna.
- Haurrekiko, nerabeekiko, gazteekiko eta familiekiko nazioarteko elkartasuna.

sostengatu horrekin soilik eraiki daitezke beren erronkei aurre egiteko eta ongizatea eta eskubide kolektiboak sortzeko gai diren komunitateak.

12

Komunitateko eragileak: prestakuntza, gaikuntza eta lagun egitea

- Eragileak, profesionalak eta boluntarioak prestatzea.
- Prestakuntza-zentroak eta -jardunak indartzea.
- Komunitate-ekintzarako trebetasunak, ezagutzak eta balioak bultzatzea.
- Familien, herritarren eta gazteen eskumenak aktibatzea.

Gaikuntza, prestakuntza eta lagun egitea funtsezko habeak dira kalitatezko komunitate-proiektuei eusteko. Ezinbestekoa da eragileak, profesionalak eta boluntarioak prestatzea, Euskadiko prestakuntza-zentroak eta -jardunak bereziki indartuz eskumenen garapenerako gune estrategiko gisa. Gaikuntza horrek komunitate-ekintzara begirako trebetasunak, ezagutzak eta balioak

bultzatu behar ditu, kontzienteagoak, etikoagoak eta eraldatzaileagoak diren esku-hartzeak ahalbidetuz. Aldi berean, familien, herritarren eta haur, nerabe zein gazteen eskumenak aktibatu egin behar dira, gehiago kohesionatutako komunitate biziagoen eraikuntzan parte hartzeko duten gaitasuna eta erantzukidetasuna sendotuz.

13

Ezagutza, diagnostia, ebaluazioa

- Gizarte-, kultura- eta hezkuntza-premien azterketa hobetzea.
- Adierazleak, diagnosiak, plan estrategikoak eta ebaluazio jarraituak erabiltzea.
- Esku-hartzeen gizarte-inpaktua neurtzea.

Ezagutza, diagnostia eta ebaluazioa ezinbesteko tresnak dira komunitate-politikak eta -proiektuak zehaztasunez bideratzeko. Funtsezkoa da lurralde bakoitzak dituen gizarte-, kultura- eta hezkuntza-premien azterketa hobetzea, begirada askotarikoak eta eguneratuak gaineratuz. Halaber, adierazleak, diagnosi zorrotzak, plan estrategikoak eta ebaluazio jarraituko prozesuak erabiltzeak aukera ematen du esku-hartzeak doitzeko, horien egokitasuna bermatzeko eta hobekuntza iraunkorreko ereduatarantz egiteko. Ekintzen gizarte-inpaktua neurtzeak, gardentasuna eta ikaskuntza ahalbidetzeaz gain, komunitate-ekimeneen gaitasun eraldatzailea indartzen du ardatz nagusi modura.



14

Berrikuntza eta eguneratzea

- Jardunak eta ereduak berrikustea eta eguneratzea.
- Ikuspegiak berreraikitzea, jasangarritasuna, eguneratzea eta koherentzia aintzat hartuz.
- Zerbitzuen mapan bikoiztasunak eta eraginkortasunak ezak saihestea.

Jardunak berritzea eta eguneratzea ezinbestekoa da komunitate-proiektuek erantzun egokiak eman diezazkieten egungo erronkei. Ereduak berrikustea eta berritzeak aukera ematen du esku-hartzeak gizarte-, teknologia- eta kultura-errealitate berrietara egokitzeko, ikuspegiak jasangarritasuna, egokitasuna eta koherentzia

aintzat hartuta berreraikiz. Horrek berekin dakar zerbitzuen mapan bikoiztasunak eta eraginkortasunak ezak saihestea, baliabideak optimizatzeaz gain, komunitate-inpaktua indartuko duen antolaketa argiagoa, koordinazio handiagokoa eta eraginkorragoa bultzatzeko.

15

Aisialdi hezigarria: pertsonen eta komunitateen garapenerako funtsezko tresna

- Komunitatea sortzeko tresna ahaltzu eta berritzailea.
- Loturen, balioen eta erantzukidetasunaren sortzaile.
- Haurren, nerabeen, gazteen eta familien eskubideen berme-emaile.
- Administrazioaren eta gizarte-eragileen arteko sare-lana indartzen du.
- Identitatea, herritartasuna eta kidesuna lantzeko espazio pribilegiatu modura ulertzen da.
- Aisialdi hezigarriak komunitatearena eta komunitatearentzat izan behar du, testuinguru bakoitzera egokitua.
- Aisialdi hezigarria, komunitatean hezkuntza-ekosistemako pieza gako modura aitortua.

Aisialdi hezigarria funtsezko komunitate-ardatz bat da, tresna ahaltzu eta berritzailea, komunitatea sortzeko eta sustatzeko gai dena loturak, balioak eta erantzukidetasuna aintzat hartuta. Haurren, nerabeen, gazteen eta familien eskubideen berme-emaile gisa jarduten du, aldi berean administrazioaren eta gizarte-eragileen arteko sare-lana indartuz. Tokiko hezkuntza-proiektuaren bizkarrezur gisa kokatu behar da; izan ere, es-

pazio pribilegiatua da identitatea, herritartasuna eta kidesun-sentimendua lantzeko. Horretarako, komunitatetik eraikitako aisialdi hezigarria izan behar du, lurralde bakoitzean errotua eta lurralde horretako errealitatera egokitua; aldi berean, ikaskuntza eta elkarbizitza ezaugarritzat dituen esperientzia partekatua sostengatzen duen hezkuntza-ekosistemako funtsezko piezatzat aitortua gizaratean.

Aisialdi hezigarria: erreferentziatzko eragile aitortuak eta baloratuak

- Aisialdi hezigarriak eragile garrantzitsu gisa eta tokiko eta herrialdeko komunitateen eraldatzaile gisa egiten duen ekarpena aitortzea.
- Lan-baldintza hobekak.
- Prestakuntzara eta prestaketara bideratutako barneko orduak.
- Hezitzaileen prestakuntzarako inbertsioa.
- Sektorea "bitarteko" lan modura hauteman dadila ekiditea.

Lehentasunezko kontua da aisialdi hezigarria zeharo eraldatzailea den erreferentziatzko eragile oinarritzotzat aitortzea, hala tokiko komunitateetan, nola herrialde osoan. Haren ekarpenari eusteko, ezinbestekoa da aisialdi hori osatzen duten pertsonen lan-baldintzak osatzea, profesionalizazioarako eta prestakuntzarako barne-denborak

bermatzea eta hezitzaileen trebakuntzan inbertsio irmo eta jarraitua egitea. Horrela, sektorea aldi baterako lan-espaziotzat ikustea saihestuko da, eta herritartasuna, gizarte-kohesioa eta komunitate-ongizatea eraikitzeko lanbide-eremu egonkor, baloratu eta estrategiko modura sendotu ahal izango da.



www.komunitateizan.eus

Laguntza ekonomikoa:

EUSKO JAURLARITZA

ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO